



Arartekoaren 2014NI-733-13 ebazpena, 2014ko maiatzaren 6koa. Horren bidez, Bakioko Udalari egindako eskaeraren ondotik jendaurrean aurkeztutako dokumentazioaren euskarri informatikoaren kopia eman ez izanari buruzko jarduera amaitutzat jo da.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan (...)k egindako kexa jaso dugu. Kexak jendaurrean aurkeztutako dokumentazioaren euskarri informatikoaren kopia eman ez izana dauka hizpide. Zehazki, dokumentazioa 2011ko kontu orokorrari eta Bakioko Udaleko doikuntza planari buruzkoa da.
2. Emandako agiriak kontuan hartuta erreklamazioan jasotako alderdiak baloratu ostean, Bakioko Udalari informazioa eskatu diogu eta kexak jorratu zuen alderdiei buruzko lehen gogoetak helarazi dizkiogu. Zehazki, honako alderdi hauek:
 - Interesdunak alkatearen eskutik jaso dituen jakinarazpenetan ez da islatu udalak espedienteak barne hartzen dituen agiriak guztiz edo neurri batean euskarri informatikoan dituen ala ez. Gure ustez, kontu horren berri edukitzea ezinbestekoa da interesdunaren eskaera baloratu ahal izateko.
 - Agiri horiek euskarri informatikoan edukiz gero, udalak espedientea eskatutako euskarri informatikoan ez bidaltzeko arrazoen legezko oinarria behar bezala azaldu beharko luke.
 - Espediente hori euskarri informatikoan ez baldin badago interesdunari erantzun beharko lioke, oinarri juridikoak behar bezala azalduz eta aurkeztutako idazkietan egindako alegazioak aintzat hartuta.
 - Modu zehatzean kontuan hartu behar dira interesdunak egindako erreferentziak, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37.8. artikulua gainekoak, baita herritarrek zerbitzu publikoak modu elektronikoan erabiltzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 6. artikulua ingurukoak ere.
 - Azkenik, antzeman dugu interesdunak jaso dituen idazkiek ez dituztela egintza administratiboei lotutako baldintzak betetzen. Baldintza horiek 30/1992 Legearen 53. artikuluan eta hurrengoetan xedatu dira (edukia, arazoiketa, jakinarazpena...). Izan ere, ez diote eskatutakoari erantzun.
3. Udalak behar bezalako erantzuna eman zion gure eskaerari eta kexa ebaluatzeko egoki irizitako eta gogoeten hurrengo atalean baloratuko ditugun agiriak bidali zizkigun.



4. Ondoren, interesdunak agiri osagarriak aurkeztu ditu, besteak beste, 2013ko apirilaren 17ko alkatetza dekretua –horren bidez udalaren jarrera berretsi zen, alegia, kexagileak 2011ko kontu orokorreko espedienteak eta doikuntza plana eskura ditzake azter ditzan eta, egoki iritziz gero, kopiak egin ditzan, aurreko idazkietan dagoeneko azaldu zioten moduan-. Ebazpenaren zioen azalpen-zatian jasotako arrazoi ondotik, aipatu espedienteen edukia euskarri informatikoan bidal ziezaizoten eskatuz hark egindako eskaera ez zen onartu.

Halaber, interesdunak udalarekin trukaturako korrespondentzia aurkeztu du, 2013rako udal aurrekontuaren espedientearen euskarri informatikoaren kopia bat bidaltzeko egindako eskaeraren ildotik (dagoeneko jendaurrean jarritakoa), 2013ko martxoaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren arabera, azter dadin eta, hala badagokio, alegazioak aurkez daitezten.

Azkenik, 2013ko udal aurrekontua behin betiko onartzea xedatzen duen 2013ko apirilaren 15eko osokoaren erabakia aurkeztu du, kexagileak aurkeztutako alegazio-idazkiaren gaineko idazkari-ikuskatzailearen txostenarekin batera. Osokoaren erabakiak ez zituen onartu kexagileak aurkeztutako alegazioak.

Hori guztia ikusita, kexa-espediente horren inguruan erakunde honek atera dituen ondorioak jakinarazi nahi dizkizugu.

Gogoetak

1. Kexak, zehazki, interesdunak espediente baten kopiak euskarri informatikoan lortzeko duen eskubidea jorratzen du.

Kontu hori aztertzeko, beharrezkoa da aurretik administrazio espedienteak eskuratzeko eta horietan jasotako agiriak lortzeko eskubidearen esparru juridikoa aztertzea. Horri dagokionez, izapide bidean dauden eta amaituta dauden espedienteen arteko bereizketa egin behar dugu.

Izapidetzen ari diren espedienteen erregulazio orokorra Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 a) artikuluan jasotzen da. Bertan, xedatzen da eskubidea *“Interesdunak badira, edozein unetan jakin dezakete prozeduren izapideak zertan diren, eta prozedura horietako agirien kopiak lor ditzakete.”*

Jurisprudentziak eskubide horren edukia mugatu du. Hala, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien 7. Atalak 2011ko urtarrilaren 26ko epaian (zuzenbideko laugarren oinarrian) zera dio:

“Ambos motivos de casación están estrechamente relacionados porque vienen a suscitar, desde perspectivas diferentes una misma cuestión: si la denegación de la fotocopia de la integridad del procedimiento administrativo



que aquí es objeto de polémica constituyó, por un lado, vulneración del derecho al conocimiento y a la obtención de copias que reconoce el apartado a) del artículo 35 de la LRJ/PAC y, por otro, vulneración del derecho a que la Administración facilite a los ciudadanos el ejercicio de sus derechos.

Para decidir esa cuestión debe comenzar afirmándose que el derecho reconocido en el apartado a) de ese tan repetido artículo 35 de la LRJ/PAC está ciertamente dirigido a facilitar el derecho de defensa, y esto lo que significa es ofrecer al interesado la posibilidad de conocer en un procedimiento administrativo todos los hechos y datos que puedan resultar relevantes para la tutela de sus derechos e intereses que quiera ejercitar por cualquier vía (esto es, por la administrativa o por la judicial).

Y desde esta inicial consideración son acertados los razonamientos antes transcritos que la sentencia recurrida utiliza para rechazar tanto la vulneración del artículo 35 de la LRJ/PAC como la de los derechos fundamentales reconocidos en el artículo 24 CE .

Debe coincidirse con dicha sentencia en que ese artículo 35 .a) no otorga un derecho absoluto a atender peticiones genéricas e indiscriminadas de la entrega de copia de la integridad del procedimiento como preconiza el recurso de casación, pues lo que se reconoce es el derecho a acceder al procedimiento para tomar conocimiento de la totalidad del mismo y, a la vista de lo así conocido, obtener "copia de documentos contenidos en ellos".

Hala izan behar da manu horren hitzez hitzekotasuna kontuan hartzen bada. Bertan "edozein agiriren kopiari" buruz hitz egiten da eta, ez, "agirien kopiari" edo "agiri guztien kopiari" buruz. Horrek esan nahi du la petición ha de singularizarse; y, así mismo, si se combina esta interpretación gramatical con una hermenéutica sistemática que tome en consideración la conveniencia de evitar solicitudes innecesarias o gratuitas que puedan perturbar el buen funcionamiento de la Administración en contra de lo que reclama el principio de eficacia que para su actuación proclama el artículo 103 CE..

llo horretan, zuzena da ere aipatu epaiak honako honen inguruan adierazitakoa: "los derechos del artículo 35.a) LRJ/PAC no fueron desconocidos, ni tampoco resultó infringido este precepto, porque la Administración no negó el acceso al procedimiento ni la posibilidad de obtener documentos, sino tan solo la entrega documental en los concretos términos en que fue pedida."

Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 37. artikulua¹ haren ataletan eskaera-datan

¹ Artikulu hori aldatu egin da gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen azken xedapenetako lehenaren bidez. Honela, hain zuzen:



amaitutako prozedurei lotuta dauden erregistroak eta espedienteetako agiriak eskuratzeko eskubidea jorratzen du.

Hizpide dugun kasuan, espediente horiek (2011ko kontu orokorra eta doikuntza plana), alegia, kexagileak eskuratu nahi zituen horien kopiak eskatu zituen, izapide bidean dauden bi prozedura dira, zehazki, jendaurrean jartzeko fasean daude. Hortaz, kopien lorpena ezin da espediente osoari lotuta egon, aipatu espedienteetan jasotako agiriei baizik.

Gauzak horrela, kexagilearen eskaerari erantzuna ematen zion eta *“ambos expedientes están en el ayuntamiento para su examen, pudiendo llevarlo a cabo en horario de oficina municipal y sacar copia de la documentación que interese”* zioen alkatearen 2013ko urtarrilaren 16ko idazkia legezketasunarekin bat datoz, aztertutako terminoak aintzat hartuta.

2. Hala ere, aurreko idazkiari erantzunez, kexagileak 2013ko urtarrilaren 21ean berriz ere 2011ko kontu orokorren eta doikuntza planaren kopia eskatu zituen eta parentesi artean adierazi zuen "ez espediente osoena". Hala izan zen haren lan ordutegia bat zetorrelako jendeari zabaltzeko ordutegiarekin eta, ondorioz, ezinezkoa zelako udal instalazioetan eskatutako agirien azterketari behar zuen denbora ematea.

Horrez gain, adierazi du jendeari erakutsitako agiriak oso luzeak direla eta irakurri eta ulertzeko denbora asko behar dela, orduetan zenbatu daitekeena, eta horrek oraindik gehiago nabarmentzen duela aurreko atalean adierazitakoa. Eskatutako informazioaren azterketa honako honi buruzkoa izan behar dela dio:

- “- el presupuesto municipal de Bakio del año 2011*
- las alegaciones presentadas al mismo y a sus modificaciones posteriores*
- las respuestas dadas por el Ayuntamiento a dichas alegaciones*
- los datos de ejercicios anteriores vinculados a éste (estado de la tesorería, saldos de dudoso cobro, el Plan Económico-Financiero, con sus modificaciones,...).*
- los datos e informaciones (gastos, ingresos, subvenciones, créditos, proyectos,...) referidas a la acción de ese Ayuntamiento que poseo y que, guardando relación con la información expuesta al público, resulta necesario contrastar*
- las decisiones que el Ayuntamiento de Bakio haya tomado y que hayan repercutido en los datos expuestos al público y objeto de esta solicitud*

“Herritarrek informazio publikoa, artxiboak eta erregistroak eskuratzeko eskubidea dute Konstituzioan, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko legean eta aplikatu daitezkeen gainontzeko legeetan xedatu moduan eta bertako baldintzak kontuan hartuta.”

Aldaketa 2013ko abenduaren 30ean jarri zen indarrean. Horregatik, esku artean dugun kasuan ezin da aplikatu. Gainera, II. titulua izan ezik, legearen gainontzeko testu artikulatua argitaratu eta hurrengo urtean jartzen da indarrean. Beraz, 2014ko abenduaren 11ra arte ezin dira aplikatu informazio publikoa eskuratzeko eskubidea arautzen duten 12. artikulua eta hurrengoak.



datos, informaciones y documentación muy compleja y extensa que poseo en mi domicilio y cuyo examen, en contraste con lo expuesto al público, debe realizarse con suficiente tiempo y espacio, siendo imposible efectuarlo en las oficinas municipales del Ayuntamiento de Bakio, determinando además, al mismo tiempo, cuál es la información, de la expuesta al público, cuya copia me interesa.”

Eskaera honetan esan du posta elektronikoz bidali zioten 2010eko kontu orokorreari buruzko informazioarekin bezala, kasu horretan baliabide horren bitartez bidal ziezaioketela.

Eskaera horretatik ondorioztatu da interesdunak dagoeneko badituela kontu orokorrari buruzko agiri batzuk, jendaurrean jarritako espedienteak barne hartutako originalekin egiaztatu nahi baditu ere.

Alkateak, 2013ko urtarrilaren 23ko idazkiaren bidez, berriro erantzun du esanez agiri askok osatzen dituztenez bi espedienteak, zaila dela espedienteak fotokopiatu edo eskaneatzea. Udalean jendearentzat zabalik dagoen ordutegian egiteko aukera eman dio, edo ordutegitik kanpoko Udaltzaingoaren bulegoetan, baita agiriak kopia-denda batera bidaltzekoa ere eskatutako espedienteen kopia jasotzeko, betiere aurretik dagokion kostua ordainduta.

2013ko urtarrilaren 28an kexagileak beste udal idazki bat aurkeztu zuen eta bertan hauxe adierazi zuen: *“Para entregar una documentación en archivos formato Word (.doc), Excel (.xls) o PDF (pdf), que se ha confeccionado con alguno/s de los programas citado/s o con otro que permite la conversión automática del documento final a algunos de éstos, no resulta necesario imprimir y después escanear la información”.*

Azkenik, bi alderdien artean beste idazkiren baten bidez hartu-emanan izan ostean kexagileak 2013ko otsailaren 11n eskaera bat bidali zuen eta bertan aipatu zuen alkatetzak ez diola 2011ko kontu orokorraren eta doikuntza planaren kopia euskarri informatikoan emango eta, horrez gain, adierazi da bi agiriak jendeari jakinarazteko epea amaituta dagoela. Haren ustez, jarduera hori Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 37.8 artikulua eta herritarrek zerbitzu publikoak elektronikoki eskuratzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeko 6. artikulua kontrakoa da, besteak beste.

Udalak eskatutako espedienteen kopia lortzea ukatu ez diola ebatzita eta jendearen arretarako ordutegitik kanpo aztertze bidezko erraztasunak eman dizkiola kontuan hartuta, kexagileak aipatu agiriak euskarri informatikoan jasotzeko duen eskubidea eta aipatu araudiaren irismena aztertu behar dira.

2013ko apirilaren 17ko alkatetza dekretuak eskatutako bi espedienteen kopia euskarri informatikoan eta posta elektronikoen bidez bidaltzeko kexagileak



duen eskubidearen inguruan azken horrek mahai gainean jarritako kontuei erantzun die.

Udalak, aurrekari gisa, esan du posta elektronikoz 2010eko kontu orokorra bidaltzearen ondotik, kexagileak kexa bat aurkeztu zuela haren ustez agiriak bidaltzeko metodoa kontraesankorra zelako. Udalak ez daki jaso ote duen. Halaber, kexatu egin zen paperean eman zioten 2010eko aurrekontua ez zelako *“una documentación ordenada, mínimamente encuadrada y formalmente coherente, lo que dificulta enormemente su lectura, comprensión y examen”*.

Beraz, sinadura elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legeko 3. artikuluko sinadura digitalaren baldintzekin bat ez datorrenez, udalak uste du bidalketa sistema ez dela egokia.

Aurrekoa esanda, halakoak elektronikoki eskuratzeari buruzko legearen 6. artikulua aplikazioa aztertu behar da. Udalak dio eskatutako agiriak ez daudela euskarri informatikoan. Horretarako sinadura elektronikoari buruzko legearen 3. artikuluko 5. atalean eta hurrengoetan xedatutakoa bete behar baita.

6.1 artikulua honakoa ezartzen du: *“Se reconoce a los ciudadanos el derecho a relacionarse con las Administraciones Públicas utilizando medios electrónicos para el ejercicio de los derechos previstos en el artículo 35 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, así como para obtener informaciones, realizar consultas y alegaciones, formular solicitudes, manifestar consentimiento, entablar pretensiones, efectuar pagos, realizar transacciones y oponerse a las resoluciones y actos administrativos.”*

Legearen definizio-eranskinaren arabera, honako kontzeptu hauek kontuan hartzea komeni da:

- Administrazio jardura automatizatua da: *“Actuación administrativa producida por un sistema de información adecuadamente programado sin necesidad de intervención de una persona física en cada caso singular. Incluye la producción de actos de trámite o resolutorios de procedimientos, así como de meros actos de comunicación.”*
- Agiri elektronikoa da: *“Información de cualquier naturaleza en forma electrónica, archivada en un soporte electrónico según un formato determinado y susceptible de identificación y tratamiento diferenciado.”*
- Bitarteko elektronikoa da: *“Mecanismo, instalación, equipo o sistema que permite producir, almacenar o transmitir documentos, datos e informaciones; incluyendo cualesquiera redes de comunicación abiertas o restringidas como Internet, telefonía fija y móvil u otras.”*



Aldi berean, sinadura elektronikoki buruzko legearen 5. atalak eta hurrengoek xedatzen dute agiri elektronikoki bat agiri publiko edo agiri administratibotzat jotzeko funtzionarioek edo langileek haien egitekoak burutzean elektronikoki sinatuta egon beharko duela.

Laburbilduz, ikuspegi formal batetik, horrelakoak elektronikoki eskuratzeari buruzko legearen 6.1 artikulua herritarrei aitortzen dien eta kexagileak aipatzen dituen sarbide elektronikorako eskubideak baliatzean, arau horiek xedatzen dituzten eta administrazioek ahal den neurrian eduki behar dituzten baldintzak jazo behar dira.

lido horretan, udalak dioen moduan, egindako jakinarazpenaren baliozkotasuna eta eraginkortasuna ziurtatzeko, interesdunak baliabide hori lehentasunezkoztat jo ostean, beharrezkoa da jakinarazpen-sistemak aukera ematea interesdunari jakinarazi beharreko hori noiz (data eta ordua) izan den egiaztatzeko, baita horren edukia noiz eskuratu den ere, identifikazio elektronikoen bitartez (eskuratzeko elektronikoki buruzko legearen 13. eta 28. artikulua).

Horregatik guztiagatik, udalak uste du eskuratzeko elektronikoen arloan indarrean dagoen araudiak ezarritakoarekin bat etorritik ez dituela eskatutako agiriak euskarri informatikoan eta posta elektronikoki baten bidez agiriak erantsitako artxiboetan bidaltzeak (paperean dagoen espediente eskaneatuz edo zenbait artxibo hainbat formatutan erantsiz) interesdunaren eskaera bete ez dela ulertzea eragin dezakeela, eskuratzeko elektronikoki buruzko legearen 6. artikuluko terminoei jarraiki. Horregatik, agiriak emateko moduari buruz interesdunak bideratutako kexen aurrekariak ikusirik, udala legezkotasunaren aplikazio zorrotzari lotzen zaio.

Hala, ez da ahaztu behar erreferentziako espedienteak luzeak direla eta makina bat agiri direla. Hortaz, kontu orokorrari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauko 62. artikulua honako hau xedatzen du:

1. Toki erakundeek, kontabilitate-ekitaldia amaitutakoan, Kontu Orokorra egin behar dute; bertan ekonomiaren, finantzen, ondarearen eta aurrekontuaren arloetan egindako kudeaketen berri agertu behar dute. Osagai hauek izan behar ditu:

- a) Egoeraren Balantzea.*
- b) Galera eta Irabazien Kontua.*
- c) Memoria; honek atal hauek izan behar ditu:*

- 1. Finantzaketa-koadroa.*
- 2. Zorraren egoera.*
- 3. Informazio-eranskina; hemen aurrekontuaren likidazioa eta Kontabilitate Orokorra erlazionatu behar dira.*

d) Aurrekontuaren likidazioa.



2. Urteko orriek eranskin hauek izan behar dituzte:

- 1. Egiaztapenaren balantzea.*
- 2. Kreditu-aldaketen egoera-orria.*
- 3. Baloreen egoeraren eta mugimenduen orria.*

3. Hori bai, inplizituki udalak mahai gainean jarritako arazoak konpon ditzakeen irtenbide orekatua igarri du. Udalak dio jakinarazpena egitea zailtasun handiko eta espedientearen garapenean eragin oso garrantzitsuak dituen kontua dela, gomendagarria bada ere, egindako jakinarazpenetan -administratuaren aldeko egintzetarako kontsulta adibidez- posta elektronikoen bitartez gauzatutako jakinarazpenaren erabilera onartzea (harreraren ziurtasunaren ahulezia kontua hartuta) eta aurkako edo zerga egintzetarako zorrotza izatea, erantzunaren terminoen arabera.

Aipatutako aurrekariak eta eskatzen den eskubidearen baliatzearen gaineko gogoetak ikusirik, irtenbidea izan daiteke azaltzea legez eskubide horren baliatzeak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 35 a) artikulua interpretazioaren inguruan egindako gogoeten lehenengo atalean adierazitako terminoak oinarri hartu behar direla, udalak ez baitu espediente elektronikorik legez eska daitezkeen berme eta baldintzekin.

Aurrekoaren kaltetan izan gabe eta eskuratzea edo atzitzea ahal den arinena eta azkarrena izan dadin, izapide bidean dagoen informazio publikoaren espedientearen artxibo informatikoak bidal ahalko litzazkioke (dauden euskarrietan: Word, Excel, etab.), berregite-lanik egin gabe. Horrez gain, interesdunari azalduko litzazkioke espediente originala eskuragarri duela udal bulegoetan azter dezan eta bertan jasotako agirien kopiak eskura ditzan.

4. Halaber, udal aurrekontuari buruzko espedientearen kopia lortzearen inguruan gauza bera esan behar da.

Horrenbestez, gure jarduna amaitutzat jotzea erabaki dugu. Dena den, honako ondorio hauen berri eman nahi dizugu:

Ondorioak

1. Bakioko Udalak legezkontasunari lotuta jardun du kexagileari izapide bidean dagoen informazio publikoaren espedienteen azterketa ematerakoan, azterketa hori udal bulegoaren ordutegian egiteko eta interesekotzat jotako agirien kopia egiteko aukera emanez.
2. Espedienteak posta elektronikoz bidaltzeak, eskuragarri dauden artxibo informatikoen arabera, eskatzen den informazioa eskuratzeko aukera erraztu eta bizkortuko luke, aipatu bidalketak izaera informatiboa duela berriaz

ararteko



URTE AÑOS

adieraztearen kaltetan izan gabe eta, hala, eskaeraren legezko betetzerako udal bulegoetan dagoen paperezko espedientea bidaliko litzateke.

